

ESPAZIOA. Eskifaiaren helburua Nazioarteko Espazio Estazioko astronautak ordezkatzera izango da

Zeruan da 'Endeavour' ontzia, aineratzea bi bider atzeratu ostean



BRUCE WEAVER / FRANCE PRESS

Atzo aineratu zen *Endeavour* ontzia Floridako Kennedy Espazio Zentrotik (Ameriketako Estatu Batuak). NASAko arduradunek bi aldiz atzeratu behar izan dute ontziaren jaurtiketa: lehenengo matxura batengatik, eta bigarrena, eguraldi txarraren ondorioz. Ontziaren helburu nagusia Naziorteko Espazio Estazioan (ISS) dauden hiru astronautak ordezkatzera izango da. Hala, Peggy Whitson estatubatuarra eta Valeri Korzun eta Serguei Treschov errusiarrek hartuko dute Onufrienko, Walz eta Burschen lekukoa Nazioarteko Espazio Estazioan. Gainera, hornigai ugari eramango dute ISSra.

IKERKUNTZA. Gaitzaren aurkako txerto bat lortzeko zailtasunak agerian gelditu dira

Kolera gizakiengan abereengan baino oldarkorragoa dela egiaztatu dute

Pertsonen garaturiko bakterioa laborategian hazitakoa baino 700 aldiz indartsuagoa da

Erredakzioa | DONOSTIA

Urtero-urtero kolera milaka lagun kutsatzen ditu. Hori dela eta, mundu osoko zientzialariak gaitzaren aurkako txerto baten bila aritu dira urte luzez. Zoritxarrez, ikerketek ez dute fruiturik eman, eta gaur egun ez dago kolera aurre egiteko txertorik. Kontuak kontu, Bostongo Unibertsitateko (Ameriketako Estatu Batuak) zientzialariek buruturiko ikerlan batek orain arte botika egoki bat aurkitu ez izanaren gakoak azaldu ditu. Ikerlana Andrew Camilli doktoreak zuzendu du.

Zientzialariek frogatu dutenez, kolera eragiten duen bakterioa 700 aldiz kutsakorragoa da gizakiengan laborategietan sortutako bakterioa baino.

Hala, orain arte egindako saiakuntzak antzuek izan dira.

Ikertzaileek Dhakako (Bangladesh) Beherako Gaitzaren Ikerketarako Nazioarteko Zentroko gaixo batek garaturiko kolera bakterio bat bakandu dute. Zientzialariek frogatu dutenez, bakterio horrek 237 gene ezberdin zituen; laborategian garatutakoak, berriz, 44.

Bizi baldintza askotara moldatzeko erraztasuna

Andrew Camilik adierazi duenez, «gizakiengan eragiten duen bakterioak gene ugari ditu. Horrek, bizi baldintza askotara moldatzeko aukera ematen dio, eta zabalteaz errazte. Gainera, gizaseme batek kolera garatzen duenean bakterioak geneak eraldatu egiten dira.

DATUA

300.000 kaltetu

Kolerari Hirugarren Munduko Gaitza deitu ohi zaio. Osasunerako Mundu Erakundeak zabalduak datuen arabera, kolera 300.000 lagun kutsatzen ditu urtean mundu zabalean. Kasurik gehienak herrialde pobreetan izaten dira, batez ere Afrikan.

Hori dela eta, gaitza pertsona guztiengan era ezberdinetan agertzen da, kolera aurkako konponbidea zailduz».

Ikerkuntzaren garrantzia azpimarratu arren, kolera ulertzeko argitu gabeko gako asko daudela uste du Camilik. Horrela, gaitza gizakiengan ani-

maliengan baino kaltegarriagoa zergatik den jakiteko ikeritzen ari direla aitortu du: «Txerto bat aurkitzeko orduan saguak erabiltzen dira maiz. Hala ere, bakterioa gizakiengan saguengan baino kaltegarriagoa dela frogatu dugu. Horrek txerto baten aurkikuntza zailtzen du».

Hesteetako infekzioak eragindako gaitza

Kolera *Vibrio cholerae* izeneko bakterioak eragindako hesteetako infekzio larria da. Bere sintomarik ohikoenak beherakoa, deshidratazioa, okadak eta sukralta da.

Gaitza oso kutsagarria da. Batez ere, uraren bidez zabalitzen da; hala ere, oso zaila da gizakitik gizakira kutsatzea.

EUTANASIA

Etorkizunean bere buruaz beste egiteko eskubidea izateko gose greba burutu du gizon batek Erresuma Batuan

Phil Suchek, gaitz sendaezin eta larri bat duen gazte britainiarra, hiru aste eman ditugose greban. Suchek etorkizunean bere buruaz beste egiteko eskubidea aldarrikatu nahi du. Hori dela eta, egungo legedia aldatzeko eztabaida baten beharraz ohartarazi nahi du gizartea. Duen gaitzaren ondorioz, Suchek ezin du bere burua hil. Etorkizunean bere buruarekin zer egin erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen du.

HOMOSEXUALITATEA

Sexu bereko bikoteek haurrak adoptatu ahal izango dituzte Suedian

Suediako Parlamentuak atzo onartu zuenez, bikote homosexualak haurrak adoptatzeko aukera izango dute. Lege berriaren arabera, bikote homosexualak zein heterosexualak eskubide berdinak izango dituzte. Suedia horrelako lege bat onartzen duen lehenengo herrialdea da. Tasso Stafilidis parlamentariak adierazi zuenez, Suedian 40.000 mila haur inguru bizi dira sexu bereko kideek osaturiko familietan.

IKERKUNTZA

Buruan elektrodoak zituzten bi tximinok ordenagailuan jokatu ahal izan dute, eskuak lotuta zituztela

Science aldizkariak kaleratu duenez, eskuak lotuta zituzten bi tximinok ordenagailuan jokatu zuten. Ikerlana Arizonako Unibertsitateko (AEB) zientzialariek egin dute. Tximinoei neuronan mezuak transmititzen zituzten 50 eta 100 elektrodo birtartean ezarri zituzten.

Ezkio-Itsasoko Udala

IRAGARKIA:

Ezkio-Itsasoko Udala Bilurak, 2002ko maiatzaren 21ean egindako ez-ohiko batzarrean, besteak beste, erabaki hau onartu zuen:

1. Inaki Ondarra Mujika eta Jose Manuel Diego Kerejeta arkitektoek idatzirik Ezkio-Itsasoko 13 HG/Gar buruzko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualea deritzon dokumentuaren presketa-lanak amaitu izanik, halako garapen-mailan non planeamendurako irizpide objektiboak eta irtenbide orokorrak formulatzea ahalbidetzen baitute, informazio publikorako epealdia zabalitzen da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hogeita hamar egunez. Egun horietan korporazioek, elkarteek eta norbanakoek iradokizunak, eta hala balegokie, planeamendurako bestelako aukerak formulatu ahal izango dituzte.

Ezkio-Itsasoa, 2002ko maiatzaren 27a.
ALKATEA.

Altzoko Udala

IRAGARKIA

Altzoko Arau Subsidiarioen 2. Elementu Aldaketa: Ordenantzen 11. eta 91. artikuluen aldaketa.

Haserako onespina

Altzoko Udalak 2002ko maiatzaren 28an egindako Biluraren, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen, gehiengo osoz:

Lehenengoa: "Altzoko Planeamendurako Arau Subsidiarioen 2. elementu aldaketa: Ordenantzen 11. eta 91. artikuluen aldaketa" dokumentua hasera batean onartzea, Arkitektura Estudioa O.E. ak idatzitako moduan.

Bigarrena: Orain, haserako onespina ematean, 1976ko Lurzorua Legaren 27. art. eta Hirigintz Planeamendurako Araudaren 120. art. kontutan izanik, indarrean dauden aurreko Arauekin bat datozen lizentziak eman ahal izango dira, baina epe onartze prozesuan dagoen Arau aldaketarekin ere bat datozenean. Baldintza hau betetzen ez duten kasuetarako, aldaketak izaten duen eremuan, lursailak erparatze, erakitzeko eta botatzeko lizentziak emakida suspentituta egongo da, gehienez ere bi urtean. Dena den behin betiko onarpenarekin suspentisioa amaitu egingo da.

Haserako onespina jaso duten dokumentu eta planoak jendaurreko erakusketan daude eta Hirigintz Planeamenduko Araudaren 164. artikularekin bat etortz; eta interesatuek beren errekalmazioak aurkez ditzakete ondoren aipatzen den moduan:

a) Haserako onespina duten dokumentuak aztertzeko lekua eta ordutegia: Altzoko Udala Idazkaritza, bulego ordutegian.

b) Aztertzeko eta kasu baltz errekalmazioak aurkezteko epea: Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamonetik hasieratik.

c) Errekalmazioak aurkezteko bulegoa: Udala Erregistro Nagusia, bulego ordutegian.

d) Errekalmazioa zuzendu behar zaien organoa: Altzoko Udala Osoko Bilurak.

Altzon, 2002ko ekainaren 3an, Alkateak, Xabier Galarraga Zabala.

Altzoko Udala

IRAGARKIA

"Altzoko nekazaritza eta paisala babesteko landa-lurrari dagokion Plan Berezia".

1) Haserako onespina

2) Lizentzien emakidaren suspentisioa.

Altzoko Udalak, 2002ko maiatzaren 28an egindako Biluraren, Alkatearen 1999/03 deialazio Dekretuak emandako kompetentziak erabiliz, besteak beste, ondorengo erabakiak hartu zituen, indarrean dagoen legediak eskatzen duen gehiengoarekin:

Lehenengoa: "Altzoko nekazaritza eta paisala babesteko landa-lurrari dagokion Plan Berezia" dokumentua hasera batean onartzea, Mire Askasibar Berastarua paisajistak eta Javier Poldán Huarte arkitektoak idatzitako moduan.

Bigarrena: Orain, haserako onespina ematean, 1976ko Lurzorua Legaren 27. art. eta Hirigintz Planeamendurako Araudaren 120. art. -ek zehazten dituen zentzuan, Plan Berezia ikutzen duen eremuan, lursailak erparatze, erakitzeko eta botatzeko lizentziak emakida suspentituta egongo da, gehienez ere bi urtean. Dena den behin betiko onarpenarekin suspentisioa amaitu egingo da.

Haserako onespina jaso duten dokumentu eta planoak jendaurreko erakusketan daude Hirigintz Planeamenduko Araudaren 164. artikularekin eta ekainaren 30eko 171/1994 Legeko 6. eta 8. artikuluekin bat etortz; eta interesatuek beren errekalmazioak aurkez ditzakete ondoren aipatzen den moduan:

a) Haserako onespina duten dokumentuak aztertzeko lekua eta ordutegia: Altzoko Udala Idazkaritza, bulego ordutegian.

b) Aztertzeko eta kasu baltz errekalmazioak aurkezteko epea: Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamonetik hasieratik.

c) Errekalmazioak aurkezteko bulegoa: Udala Erregistro Nagusia, bulego ordutegian.

d) Errekalmazioa zuzendu behar zaien organoa: Altzoko Udala Osoko Bilurak.

Altzon, 2002ko ekainaren 3an, Alkateak, Xabier Galarraga Zabala.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria